

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAUURIKO URKIDETZA

Ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen errolda, 2019ko lehen hiruhilekoko

Erabiltzaileak Hartzeko Zerbitzuak ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen 2019ko lehen hiruhilekoko errolda egin du.

Lehendakariak errolda 2019ko ekainaren 13ko 049 Ebazpenaren bidez onetsi du, eta jendaurrean jarriko du hamabost (15) egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesa dutenek Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango dute zergadunen errolda hori, 9:00ak eta 13:30ak bitartean. Zerbitzu hori Amurrioko udaletxean dago (Juan de Urrutia plaza zk.g.; behe solairua). Era berean, egoki deritzeten eta beren eskubide diren argibideak eskatu eta alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Zergadunek erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikulua 3. paragrafoan.

Zergadunek berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango dute lehendakariaren aipatutako ebazpenaren aurka. Horretarako hilabete (1) izango dute iragarkiaren jendaurreko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Argibideak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze errekurtsuak lehendakariari jarriko zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2019ko uztailaren 8tik irailaren 7ra, bi egun horietan barne.

Tasaren ordainketa helbideratuta dutenei 2019ko uztailaren 8an kobratuko zaie.

Tasa hori helbideratuta ez dutenek Caixabankek Amurrioko Elexondo kaleko 21ean duten bulegoan ordaindu beharko dute, astelehenetik ostiralera 08:15ak eta 10:15ak bitartean, etxean jasotako faktura eskuetan dutela. Faktura hori galdu edo jaso ez bada, Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan (Amurrioko udaletxea) jaso ahal izango da haren kopia.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarquak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Izoria, 2019ko ekainaren 13a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES